## Enpresa-Erakundea / Empresa- Entidad

Leartiker

## Lanpostua / Puesto:

Osasun arloko ikerlaria

## Lantokia / Lugar de trabajo:

MARKINA-XEMEIN (Bizkaia)

## Egin beharreko zereginak edo eginkizunak / Tareas o funciones a realizar:

Leartikerren hazten jarraitzen dugu...

Leartiker Polimeroen Teknologia lantaldera batzeko Pertsona bat bilatzen ari gara, Osasun espezializazio teknologikoan, hain zuzen ere. Espezializazio honetan, material polimeriko biobateragarri berriak garatzen digtugu gailu medikoetan erabiltzeko, ideiatik pazientera.

Pertsona zeharka Osasun arloko ikerketa-lerro ezberdinetan parte hartuko du. Alde batetik, mikrofluidikako lerroan, zeinetan Point-of.Care (POC) gailu medikoak garatzen ditugun injekzio-konpresio bidez, gainazalak aldatuz eta funtzionalitate berriak emanez, prozesua eskalatuz eta erreplikazio gaitasuna hobetuz eta propietate optikoak hobetuz. Bestetik, gailu medikoen lerroan, zeinetan profesional klinikoekin lan egiten dugun haien eta pazienteen beharrizan medikoak identifikatzen ditugun; garapen ziklo osoari erantzuna ematen diogu, ideiatik preseriera.

Nazio eta nazioarteko proiektuetan lan egiteko aukera edukiko du, I+G+B barne eta kanpo (finantzazio publikoa edota pribatua) proiektu hauen kudeaketa teknikoan eta ekonomikoan eta aukera berrien identifikazioan eta bilaketan partehartzen.

## Eskatzen diren betekizunak / Requisitos exigidos:

Lantalde honen parte izateko hurrengoa beharko duzu:

FORMAKUNTZA

Ingeniaritza Mekanikoa, Industriala, Diseinu industriala, Biomedika Gradu eta Unibertsitate Master perfildun Pertsona baten bila gabiltza.

Gaiarekin erlazionatutako doktorautza egin izatea positiboki baloratuko dugu.

ESPERIENTZIA PROFESIONALA

Aurretiko esperientzia profesionala antzeko lanpostuetan positiboki baloratuko dugu. Esperientzia ez baduzu baina lanpostua zure interesekoa bada, ez eduki zalantzarik zure izena emateko!

CAD eta CAE software-etan esperientzia ondo baloratuko dugu.

Aurretiko esperientzia eta fabrikazio prozesuengatik grina baloratuko dugu ere

HIZKUNTZAK

Ingelesaren domeinua, ahozkoa eta idatzizkoa. Beste hizkuntza batzuetan ezagutza baloratuko dugu!

## Eskaintzen dena / Se ofrece:

Zer eskaintzen dizugu?

Etorkizuneko proiektu bat puntako ezagutza arlo batean eta eskaera handiko merkatu batekin

Erakundearen erabakietan parte hartzen duen lan-talde gazte, proaktibo eta dinamiko baten parte izatea zeinetan profesionalki eta pertsonalki garatuko zaren zure harri-koskorra ekarriz etorkizuneko gizartera

Puntako ekipoak dituzten laborategietan garatzea

Proiektu tipologia ezberdinetan parte hartuz beste erakunde eta Leartikerreko Bezero diren beste enpresa batzuen errealitatea ezagutzea

Gure beharrizanetara egokitzeko hasierako formakuntza eta etengabekoa pertsonalizatua zure Banakako Garapen eta Kontribuzio Planaren bitartez Karrera Planarekin lotuta dagoena

Lan-kontratu mugagabea astelehenitk ostiralera eta ordutegi eta egutegi malgu bat

Telelana egiteko aukera nahiduzun lekutik!

Gure kultura: LEARTIKER ZIRRARA

#PertsonentzakoTeknologia

Denon eta denontzako proiektu kooperatiboa

Leartikerren bikaintasuna errepresentatzen duen kultura batean sinisten dugu zeinetan adiskidetasun harremanak, familia-sentimendua, hurbiltasuna, konfiantza, aldez-aurretiko jarrera ona eta konpromisoa nagusitzen diren

Gure baloreak: INPLIKAZIOA, KONFIANTZA, ZERBITZURAKO GOGOA, POSTIBISMOA, ZORROZTASUN ZIENTIFIKOA

Berrikuntza irekian oinarritutako eredu batean, Leartiker elkarlanean oinarritutako proiektua da, ezagutza balio erantsi bilakatuz, dibertsifikazio prozesuak erraztuz eta lanpostu berriak sortuz.